



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
(BIGARREN ETA HIRUGARREN ZUTABEA) -
LABURPENA.**

2016

FINANTZA-POLITIKARAKO ZUZENDARITZA

Ogasun eta Ekonomia Saila

1.- BGAE-AK 2016KO EKITALDIAN

1.1.– BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2016

2016an, Euskal Autonomia Erkidegoan 168 BGAE zeuden. Horietatik **83k Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzte, aurreikuspen-planen bidez**, eta gainerako **85ek bestelako arrisku batzuk estaltzen dituzte**, hala nola suteak, heriotzak, osasun-laguntza eta beste batzuk.

1. taula. BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2016

MODALITATEA	Erakunde kopurua	% Guztira
Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	83	% 49,40
Elkartuak	3	% 1,78
Enpleguak	45	% 26,79
Banakakoak	35	% 20,83
Gainerako BGAEak	85	% 50,60
Heriotzak	30	% 17,86
Osasun-laguntza	2	% 1,19
Suteak	40	% 23,81
Bestelakoak	13	% 7,74
GUZTIRA	168	% 100,00

¡Error! Vínculo no válido. Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

1. taula horretan “Gainerako BGAEak” epigrafearen barruan sartuta dauden 85 BGAEak oso erakunde txikiak dira, beheko taula honetan argi ageri denez.

2. taula. Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen ez dituzten BGAEen garrantzi erlatiboa.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantzeko zifra	% Guztira
Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	83	24.976.018.731,59 €	% 99,87
Elkartuak	3	32.344.505,16 €	% 0,12
Enpleguak	45	13.390.648.639,03 €	% 53,55
Banakakoak	35	11.553.025.587,40 €	% 46,20
Gainerako BGAEak	85	31.374.474,59 €	% 0,13
Heriotzak	30	19.537.469,94 €	% 0,08
Osasun-laguntza	2	973.620,77 €	% 0,00
Suteak	40	4.009.647,33 €	% 0,02
Bestelakoak	13	6.370.719,55 €	% 0,03
GUZTIRA	168	25.005.499.761,16 €	% 100,00

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

¡Error! Vínculo no válido. Oharra: “Gainerako BGAEak” epigrafeko datuak 2015ekoak dira, dauzkagun azken datuak; izan ere, erakunde horiek ez dute behin-behineko informaziorik bidaltzen telematikoki, euskarri fisikoan baizik, urteko kontuak onartu ondoren.

BGAE horien balantzeko zifra, BGAE guztien balantzeko zifra osoaren aldean, oso txikia da. Eta, gainera, ematen dituzten prestazioak beti daude arrisku zehatz eta

jakin batzuk estaltzearekin lotuta; inoiz ez dira pentsio-sistema publikoak ordaindutakoez gain pentsio osagarriak ematea. Alegia, BGAE horiek ezin har daitezke, inolaz ere, oro har bigarren edo hirugarren zutabe deritzonako tresnak artikulatzen dituzten erakundeen multzokotzat.

Txosten honetan, beraz, Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzten 83 BGAEak izango ditugu aztergai, gainerakoek ez baitute interesik Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspen osagarriaren aldetik dagoen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko, aurreikuspen osagarritzat ulertzen badugu pentsio-sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak bideratzeko (nagusiki erretiro-pentsioak) EAEn dauden erakundeen multzoa.

Enpleguko BGAEak 45 dira. Horietatik 41ek enpresa dute beren aurreikuspen-planen jardun-eremua, eta 4 BGAE, berriz, sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen baitute barruan: BGAE batek, Mondragon korporazioko kide diren kooperatibak; beste batek, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuei heltzen dieten enpresak; eta bi BGAEk, sektore publikoko langileak (batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak, eta besteak, Foru eta Toki Administrazioak).

1.2.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzeko zifra. 2016

3. taula.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Balantzeko zifra	% Guztira
Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	83	24.974.125.286,57 €	% 100,00
Elkartuak	3	32.344.505,16 €	% 0,13
Enplegukoak	45	13.390.648.639,03 €	% 53,61
Banakakoak	35	11.553.025.587,40 €	% 46,26

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

¡Error! Vínculo no válido.

2016an, aurreikuspen-planak zituen BGAE baten balantzeko zifra, batez beste, 300 milioi eurokoa zen; banakako BGAEena, batez beste, 330 milioi eurokoa; eta enplegukoena, 297 milioi eurokoa. Banakako BGAEen bazkide kopurua enplegukoena ia halako bi da, baina bi-biek oso antzekoa dute batez besteko balantzea.

1.3.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopurua. 2016

4. taula.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Bazkideak, guztira
Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	83	1.136.122
Elkartuak	3	2.323
Enpleguak	45	452.980
Banakakoak	35	680.819

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

2016an, aurreikuspen-planak zituzten BGAEek 13.688 bazkide zituzten, batez beste; banakako BGAEek, 19.452 bazkide; eta enpleguak, 10.066 bazkide. Banakako BGAEen bazkide kopurua enpleguakoa ia halako bi da.

1.4.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak. 2016

5. taula.

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Ekarpenen zenbatekoa	% Guztira	Prestazioen zenbatekoa	% Guztira
Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak	83	671.808.760,15 €	% 100,00	644.082.193,07 €	% 100,00
Elkartuak	3	934.666,68 €	% 0,14	1.031.991,24 €	% 0,16
Enpleguak	45	275.743.185,49 €	% 41,04	407.725.617,12 €	% 63,30
Banakakoak	35	395.130.907,98 €	% 58,82	240.469.833,35 €	% 37,34

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

5. taulan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak eta zenbait prestazio mediko. Enplegurako BGAE batzuek egiten dituzte horrelako prestazioak, baina ezin har daitezke bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude taulan jasota, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat.

1.5.– Erreskateak, aurreikuspen-planak dituzten BGAEetan. 2016

6. taula.

	BGAE elkartuak	%	Enpleguko BGAEak	%	Banakako BGAEak	%	BGAEak guztira
Erreskate kopurua	11	% 0,04	110	% 0,41	26.906	% 99,55	27.027
Erreskateen zenbatekoa	130.402,45	% 0,07	2.496.601,21	% 1,38	178.739.995,98	% 98,55	181.366.999,64

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die bazkideei, bai banakako modalitatekoiei eta bai BGAE elkartuen modalitatekoiei, eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko, baldin eta 10 urte baino gehiagoko antzinasuna badute. Enpleguko BGAEek, berriz, aurreikuspen-plan batzuetan bakarrik daukate jaso eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko aukera hori: otsailaren 23ko 5/2012 Legea (BGAEena) indarrean jarri zenean erreskaterako aukera jada bazuten aurreikuspen-planetan, zehazki.

2.- AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA

2.1 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopuruaren bilakaera.

7. taula.

¡Error! Vínculo no válido. Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen kopurua txikitu egin da 2013-2016ko aldian. Finantzen eremuan izan den fusio-prozesuak BGAEak fusionatzeko antzeko prozesua eragin du, erakunde horiek sustatutako bazkideek bultzatuta.

2.2 Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzeko zifraren bilakaera.

8. taula.

4H 2013	4H 2014	± Δ %	4H 2015	± Δ %	4H 2016	± Δ %
22.554.410.215,44	23.708.871.494,48	% 5,12	24.203.333.714,02	% 2,09	24.976.018.731,59	% 3,19

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

2016ko ekitaldian, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen balantzea 773 milioi euro handitu zen.

BGAEek beren aurreikuspen-planen bidez ekarpenengatik jaso zuten diruaren eta prestazioengatik eta erreskateengatik ordaindu zutenaren arteko aldea -153,9 milioi eurokoa izan zen ekitaldi horretan, eta, beraz, inbertsioen etekinak eragin zuen hazkundera.

2.3.- Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopuruaren bilakaera.

9. taula.

	4H 2013	4H 2014	± Δ %	4H 2015	± Δ %	4H 2016	± Δ %
BAZKIDE GIZONEZKOAK	670.598	662.482	-% 1,21	653.497	-% 1,36	640.085	-% 2,05
BAZKIDE EMAKUMEZKOAK	510.221	509.546	-% 0,13	503.928	-% 1,10	496.037	-% 1,57

GUZTIRA	1.180.819	1.172.028	-% 0,74	1.157.425	-% 1,25	1.136.122	-% 1,84
---------	-----------	-----------	---------	-----------	---------	-----------	---------

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Gogoan izatekoa da aurreikuspen-planak dituzten BGAEtan guztira zenbat bazkide dauden erakusten dutela 9. taulako datuek, kontuan hartu gabe pertsona bat plan bakar batean edota zenbait planetan (edota BGAEtan) dagoen. Alde horretatik, azken hiru ekitaldietan bazkideen kopuruak behera egin izana esplika daiteke, hein batean behintzat, aldi horietan banakako erakundeek bat egin izanaren ondorio logiko gisa, erakundeak fusionatzeko prozesuak aurreikuspen-planek ere bat egitea ekarri baitu berekin.

2.4.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenen eta prestazioen bilakaera.

10. taula.

	4H 2013	4H 2014	± Δ %	4H 2015	± Δ %	4H 2016	± Δ %
EKARPENAK	844.307.949,79	671.357.467,83	-% 20,48	656.386.143,14	-% 2,23	671.808.760,15	% 2,35
PRESTAZIOAK	716.105.879,36	626.618.632,32	-% 12,50	624.859.612,63	-% 0,28	649.227.441,71	% 3,90
ALDEA	128.202.070,43	44.738.835,51	- 65,10	31.526.530,51	- 29,53	22.581.318,44	-% 28,37

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Taula horretan ez dira ageri erreskateak, ez eta enpleguko zenbait BGAEren kuota eta gizarte-prestazioak ere, lehen esandako arrazoi berberengatik: erreskateak, ez direlako prestazioak; eta besteak, ezin har daitezkeelako bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat. Alegia, gizarte-aurreikuspeneko planen ekarpen eta prestazioak jaso dira taulan.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek ekarpenengatik izandako diru-sarrerak % 2,35 hazi ziren 2016an. Hazkunde horrek hautsi egin zuen ekarpenek 2013-2015eko aldian izandako portaera negatiboa.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homoginoa aurreikuspen-planak dituzten BGAEak modalitateka aztertuz gero. Horixe erakusten du 11. taulak.

11. taula.

	4H 13	4H 14	± Δ %	4H 15	± Δ %	4H 16	± Δ %
Ekarpenak guztira	844.307.949,79	671.357.467,83	-% 20,48	656.386.143,14	-% 2,23	671.808.760,15	% 2,35
Enplegukoak	269.232.065,20	273.098.452,32	% 1,44	277.272.123,97	% 1,53	275.743.185,49	-% 0,55
Banakakoak	563.228.503,75	390.438.448,89	-% 30,68	372.701.636,37	-% 4,54	395.130.907,98	% 6,02
Elkartuak	3.149.525,00	1.048.750,96	-% 66,70	1.012.697,88	-% 3,44	934.666,68	-% 7,71
Mistoak	8.697.855,84	6.771.815,66	-% 22,14	5.399.684,92	-% 20,26	0,00	- 100,00

--	--	--	--	--	--

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Erakunde elkartuak eta mistoak alde batera uztekoak dira, oso txikiak direlako, eta, beraz, enpleguko erakundeak eta banakakoak izango ditugu aztergai.

Horri dagokionez, esan beharrekoa da enpleguko BGAEei egindako ekarpenen zenbatekoa eta banakakoei egindakoena antzekoak izan direla 2014. urtetik hona. Hori horrela izanda ere, azpimarratzekoa da 2014an banakako BGAEei egindako ekarpena % 31 gutxitu zela, bi arrazoi hauek eraginda nagusiki: batetik, zergetan kengarriak ziren ekarpenen zenbatekoen mugak txikitu izana; eta, bestetik, Auzitegi Konstituzionalaren 2014ko ekainaren 12ko 97/2014 Epaia, erreskate-eskubideari eragiten ziolako (ekarpenak nabarmen gutxitu ziren 2014ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berean izandakoaren aldean). Bestalde, argi ikusi da 2012tik ekarpenak gutxitu egin direla, krisi ekonomikoaren ondorioz, herritarrek aurrezteko ahalmen txikiagoa dutelako.

Enpleguko BGAEei dagokienez, komeni da gogoratzea 2011ren aldean 2012an ekarpenek behera egin izana zerk eragin zuen nagusiki: sektore publikoko bazkideek ekarpenak egin ez izanak.

2.5.– BGAEen erreskateen zenbatekoaren bilakaera.

12. taula.

	4H 13	4H 14	± Δ %	4H 15	± Δ %	4P 16	± Δ %
Erreskateak	302.219.320,93	221.536.300,32	−% 26,70	204.362.994,28	−% 7,75	181.366.999,64	−% 11,25

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

la erreskate guztiak (% 98,5) banakako aurreikuspen-planetan egin dira.

Prestazioren bat sortu aurretik eskubide ekonomikoen erreskate partzial edo erabatekoagatik sistematik ateratako guttizko zenbatekoa 181 milioi euro izan zen 2016an. **Banakako BGAEen kasuan**, urtean izaten dituzten ordainketen zenbateko osoaren parte handi bat da. Hain zuzen, erreskatetan ordaindutakoa 2016an (179 milioi) prestaziotan ordaindutako zenbatekotik oso gertu dago (235 milioi). Banakako BGAEek erreskate bidez 2016an aurretiaz itzuli zuten dirua beren ondarearen % 1,6 inguru zen, ekitaldian egindako ekarpenen % 45, eta aurreikuspen-planek estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestaziotan ordaindutakoaren % 76.

Erreskateen kopurua (partzialak eta erabatekoak) 27.027 izan zen 2016an, eta erreskateen zenbatekoa, berriz, batez beste, 6.710 eurokoa.

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, esan beharrekoa da ekarpenengatik jasotako diruaren eta prestazioengatik nahiz erreskateengatik ordaindutakoaren arteko aldeak saldo negatiboa ematen duela 2013tik 2015era, urteko 175 milioi euro ingurukoa (159 milioi 2016an), ekarpenak gutxitu egin zirelako (bai banakako BGAEetan eta bai enplegukoetan), bai eta lehen esandako arrazoiengatik ere.

13. taula.

	4H 2013	4H 2014	± Δ %	4H 2015	± Δ %	4H 2016	± Δ %
EKARPENAK (1)	844.307.949,79	671.357.467,83	-% 20,48	656.386.143,14	-% 2,23	671.808.760,15	% 2,35
PRESTAZIOAK (2)	716.105.879,36	626.618.632,32	-% 12,50	624.859.612,63	-% 0,28	649.227.441,71	% 3,90
ERRESKATEAK (3)	301.279.008,03	221.536.300,32	-% 26,47	203.135.781,04	-% 8,31	181.366.999,64	-% 10,72
ALDEA (1)-(2)-(3)	-173.076.937,60	-176.797.464,81	% 2,15	-171.609.250,53	-% 2,93	-158.785.681,20	-% 7,47

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

BGAEak estaltzen duen kontingentziarik gertatu gabe eskubide ekonomikoak aurretiaz jaso dituzten pertsonen kopurua oso adierazle ona da ikusteko sistemak zenbateraino ez duen betetzen bere helburua –aurreikuspenerako izatea, alegia–, eta, aldiz, nola erabiltzen den bestelako helburu batzuetarako –finantzekin eta zergekin zerikusia duten arrazoiengatik, adibidez–. Dena den, datuetatik ondoriozta daitekeenez, erreskateen zenbatekoa txikituz doa, nabarmen, 2013tik aurrera, eta 2016an erreskatatutako zenbatekoa, adibidez, 2013an erreskatatutakoa baino % 40 txikiagoa da.

2.6.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, bazkide kopuruaren arabera.

2016an, aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, batez beste, 13.688 bazkide zituzten: banakakoek, 19.452; enplegukoek, 10.066, eta elkartuek, 774. Banakako BGAEen bazkide kopurua enplegukoena ia halako bi da.

Baina batezbesteko handi samar horiek “minifundismo” itzela ezkututzen dute BGAEen kolektiboan; batez ere, enpleguko BGAEen artean. Enpleguko BGAE gehien-gehienek, % 64k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 5 erakundek baizik ez du 5.000 bazkide baino gehiago (ikusi 14. taula). Banakakoen artean tamaina-alde hori ez da hain nabarmena, modalitate horretako BGAEen % 37 soilik baitira 1.000 bazkide baino gutxiagokoak eta % 18ra iristen baitira 25.000 bazkide baino gehiagokoak.

14. taula.

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak	Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Guztira
-----------------	------------------	-----------------	----------------	---------

	Sektorialak	Enpresa	Enpleguak			
			Enpleguak	Banakakoak	Elkartuak	
< 250		9	9	6	1	16
250–1.000		22	22	7	1	30
1.001–5.000		9	9	10	1	20
5.001–25.000		1	1	6		7
> 25.000	4	0	4	6		10
Guztira	4	41	45	35	3	83

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

2.7.– Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen tamaina, ondarearen arabera.

15. taula.

Ondarea (milioitan)	Enpleguak			Banakakoak	Elkartuak	Guztira
	Sektorialak	Enpresa	Enpleguak guztira			
< 10		17	17	9	1	27
10–150		18	18	17	2	37
150–300		3	3	3		6
> 300	4	3	7	6		13
Guztira	4	41	45	35	3	83

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertu dugunean bezala, BGAEak beren ondarearen arabera aztertuta ere lehen aipatutako minifundismoa ageri da: tamaina txikiko erakunde askok, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ia % 77k, batezbestekoa baino ondare txikiagoa dute, eta BGAE gutxi dira tamaina handikoak. Eta hori enpleguak BGAEetan nahiz banakakoetan gertatzen da. BGAEen % 12k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 80 dute.

3.– AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN SEKTOREAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEek ondare handia kudeatzen dute. Datu makroekonomikoetan adierazita, 2016an EAEn izandako BPGaren % 35,25 da. Ratio horrek aditzera ematen duenez, BGAEek Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi eta ezarpen handiagoa dute (ia laukoitza) pentsio-funtsek Espainian dutena baino, azken horien ondarea BPGaren % 9,6 izan baitzen 2016an. Hain aktibo-bolumen handia kudeatuta, BGAEek garrantzi handia dute finantzen ikuspegitik.

BGAEen garrantzia txikiagoa da, dena den, gizarte-babesaren sisteman zer-nolako dimentsio erlatiboa duten aztertzen badugu, eta ez dimentsio finantzarioa. Izan ere, ekarpenengatik dituzten sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan duten gastua BPGaren % 1 inguru dira.

Eskura ditugun 2016ko ekitaldiko datuak kontuan izanda, BGAEek ekarpenengatik izandako sarrera arruntak Gizarte Segurantzaren sistema publikoak gizarte-kotizazioengatik jasotako diruaren % 11 inguru izan ziren, eta BGAEek gizarte-prestazioetan izandako gastua, berriz, sistema publikoak izandakoaren % 7,29 inguru.

¡Error! Vínculo no válido. 16. taula.

	Euroak, milakotan	BPGaren %	Gizarte Seg. %
Ekarpenak, planak dituzten BGAEetara	671.809	1	11,21
Prestazioak, planak dituzten BGAEena	649.227	1	7,29
Ondarea, planak dituzten BGAEena	24.976.018	35,25	

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Gizarte-babeseko gastuetan eta sarreretan BGAEek hain pisu txikia izate hori esplikatzeko, bat baino gehiago dira arrazoiak, hauexek azpimarratzekoak: sistema pribatua publikoa baino askoz gazteagoa da, edo ez hain heldua; sistema pribatua ez dago orokortuta, eta publikoa, aldiz, ia unibertsala da; eta sistema publikoan egiten diren kotizazioen aldean, sistema pribatuko ekarpenak oso txikiak dira.

4.– BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA

4.1.– Aurreikuspen-planen errentagarritasuna

Banakako BGAEen modalitatean aurreikuspen-planek oro har 2016an lortutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondareagatik) % 1,23 izan zen. Hemen, 17. taulan, errentagarritasunak ageri dira, orientazio inbertitzailearen arabera sailkatuta.

17. taula. **¡Error! Vínculo no válido.** Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Gizarte-aurreikuspeneko plan bermatuak kontuan hartu gabe, halakoetan inbertsioaren epea gehienez ere 10 urtekoa izan baitaiteke (hala dio 203/2015 Dekretuak, urriaren 27koak, BGAEen 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duenak), gainerakoan, 2016an, orientazio inbertitzaile arriskutsuena zuten

banakako planek izan zituzten emaitza onenak: errenta aldakorraren mendekoen zeuden planek, alegia. Horri dagokionez, gogoan izatekoa da plan batean epe luzean lortzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela azken kapital metatuaren zenbatekoan.

Horregatik, orientazio inbertitzailearen arabera plan mota egoki hautatzea da alderdirik garrantzitsuenetako bat pentsio osagarri egoki bat lortzeari begira.

Hautatze hori, alabaina, oso zaila gertatzen zaio jende gehienari. Alde horretatik, pentsio osagarri egoki bat lortzeko, oso baliagarriak izan daitezke bizi-zikloaren inbertsio-estrategiak, BGAEek ongi diseinatuak.

18. taula. Banakako aurreikuspen-planak, urteko errentagarritasunaren arabera. 2016

Errentagarritasuna	Banakako planen kop.
Negatiboa	57
% 0 – % 5	226
% 5 – % 10	19
> % 10	3

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

18. taulan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren banakako aurreikuspen-planen buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da. Bestalde, 19. taulan, planen kopurua ageri da, BGAEen arabera sailkatuta.

19. taula. Banakako aurreikuspen-planen kopurua, BGAEen arabera. 2016
no válido. Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Enpleguko BGAEei dagokienez, lau erakunde sektorialak (kudeaketa propioa dute) enpleguko BGAE guztien ondarearen % 74 dira, eta % 4,69ko errentagarritasuna izan zuten, batez beste, 2016an. Dena den, kontuan izan behar da legediak enplegu-erakundeei aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz kontabilizatzeko, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin alderatu daitezke zuzenean banakako erakundeenekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

4.2.– Orientazio inbertitzailea, bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, badirudi inbertsio motak desberdina izan behar duela bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteagoa bazkidea, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa, eta bazkidea zenbat eta zaharragoa, inbertsioa orduan eta seguruagoa. Erretiratzeko adina hurbildu ahala, inbertsioek seguruagoak izan behar dute, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio; gaztetan, aldiz, metatzeko urte asko edukita eta arriskatzeko kapitala txikiagoa izanda, errentagarritasunik handiena bilatzeak izan behar du irizpide nagusia inbertitzeko garaian.

20. taula. Bazkide kopurua, adinaren eta planaren orientazio inbertitzailearen arabera. 2016

Adina	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskutsua		Bestelakoak	
	Bermatuak	Errenta finkoa, epe laburra	Errenta finkoa, epe luzea	Errenta finkoa, mistoa	Errenta aldakorra, mistoa	Errenta aldakorra	Bestelakoak	GUZTIRA
< 36 urte								
Kopurua	8.158	19.165	8.675	104.849	6.051	2.929	1.458	151.285
%	% 5,39	% 12,67	% 5,73	% 69,31	% 4,00	% 1,94	% 0,96	% 100,00
36–45 urte								
Kopurua	39.127	54.082	22.469	217.687	20.286	9.951	7.627	371.229
%	% 10,54	% 14,57	% 6,05	% 58,64	% 5,46	% 2,68	% 2,05	% 100,00
46–55 urte								
Kopurua	80.801	67.319	27.477	217.444	24.716	11.039	12.426	441.222
%	% 18,31	% 15,26	% 6,23	% 49,28	% 5,60	% 2,50	% 2,82	% 100,00
56–65 urte								
Kopurua	72.755	62.313	25.437	165.311	14.808	7.478	11.015	359.117
%	% 20,26	% 17,35	% 7,08	% 46,03	% 4,12	% 2,08	% 3,07	% 100,00
> 65 urte								
Kopurua	20.618	30.890	13.589	59.934	6.126	2.983	5.560	139.700
%	% 14,76	% 22,11	% 9,73	% 42,90	% 4,39	% 2,14	% 3,98	% 100,00
Guztira								
Kopurua	221.459	233.769	97.647	765.225	71.987	34.380	38.086	1.462.553
%	% 15,14	% 15,98	% 6,68	% 52,32	% 4,92	% 2,35	% 2,60	% 100,00

Iturria: Finantza Politikarako Zuzendaritza

Irizpide hori, oro har, bete egiten da BGAeetako bazkideen kasuan. Horixe ikusten da, hain zuzen, 20. taulari erreparatuz gero. Kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa (batik bat, epe laburreko errenta finkoan eta bermatuetan egindakoak) hazi egiten da, oro har, bazkidearen adinak gora egin ahala. 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek beren funtsen % 13 dute inbertitua epe laburreko errenta finkoan, eta 65 baino gehiago dituztenek, berriz, askoz gehiago: funtsen % 22. Beste horrenbeste gertatzen da 65 urtera arteko plan bermatuekin.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioak profil bereziki egokikoak direnik, errentagarritasun handiago bat bilatze horretan bere gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa 36 urte baino gutxiagoko bazkideek beren ondarearen % 18 inbertsio kontserbadoreetan inbertituta edukitzea eta ehuneko hori % 93ra iristea errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan inbertitutakoa ere kontuan hartuz gero. Horretan, ez dago alde handirik 56–65 urteko bazkideek inbertsioetan duten portaerarekiko; izan ere, nahiz eta azken horiek ehuneko handiagoa duten inbertitua zorro kontserbadoreetan (% 38), ehunekoa ia berbera da (% 91) errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan inbertitutakoa ere kontuan hartzen badugu.

Jende gazteenak funtsak horrela esleitzea ez da eraginkorra, ez baitago ia alderik horien portaeraren eta jende nagusiagoaren orientazio inbertitzailearen artean. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 2k soilik hautatu ditu arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrek aktiboen % 75etik gorako pisua duen. Jende nagusiaren kasuan logikoa dena logikarik gabea da gazteen kasuan; izan ere, geroan behar besteko pentsioa izateko, nahikoa kapital metatu behar da aurrena, eta gazteek, azken kapital hori lortzeko ezinbestekoa duten errentagarritasun bati uko egiten diote horrela, portaera kontserbadore horrekin inbertitzean.

Egoera horri konponbide bat eman nahi dio bizi-zikloaren inbertsio-estrategien erregulazioak, zeina BGAEei aplikatu beharreko araudian baitago jaso. Dekretuak dioenez, ekarpen finkatuko aurreikuspen-planak artikulatzen dituzten BGAEek, banakako modalitatekoek, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini beharko diete erakundeko bazkide osoei, gutxienez hiru aurreikuspen-planekoa eta gehienez bostekoa, arrisku- eta etekin-konbinazio bat baino gehiago dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta bazkide bakoitzaren egoera.

Azkenik, nabarmentzekoa da bazkideen % 52k, beren adina gorabehera, errenta finko mistoko planen alde egiten dutela, zeinetan errenta aldakorrek aktiboetan inbertitutakoa % 30era iristen ez den. Errenta finko mistoko planak aukeratzen dituzten bazkideen ehunekoak % 69 da 36 urtetik beherakoetan.

4.3.– Administrazio-gastuak

BGAEek lortzen duten errentagarritasunean zuzenean eragiten du, inbertsio-estrategiarekin lortutako errentagarritasunaz gain, administrazio-gastu moduan aplikatzen den ehunekoak. Inbertsio-estrategia bera izanda, administrazio-gastuak handiagoak izateak eragin negatibo itzela du epe luzean metatuko den kapitalean.

Gastuak neurrizkoak izatea, beraz, funtsezko bi faktoreetako bat da, azken kapital egoki bat lortuko bada, eta, harekin, behar besteko pentsio osagarri bat. Beste faktorea, lehen ere esan den moduan, inbertsio-estrategia egokia izatea da, bai ikuspegi finantzariotik, bai bizi-zikloaren ikuspegitik (gaztetan ekarpen nahikoak egiten hasiz).

2016an, administrazio-gastuetan alde handia zegoen enpleguko modalitatearen eta banakakoaren artean. Orain emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, modalitate bakoitzeko administrazio-gastu guztien ehunekoaren batezbesteko aritmetikoaren emaitza da. Hala, banakako BGAEen administrazio-gastuak ondarearen % 1,20 izan ziren.

Bestalde, ekarpen finkatuko enplegu-plan guztien administrazio-gastuen batezbestekoa % 0,90 izan zen. Horrek esan nahi du banakako BGAEtan administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa % 34 handiagoa dela enpleguko BGAEek ekarpen finkatuko planetan gastu moduan ezarritakoa baino.

Alderaketa enpleguko lau BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoarekin eginez gero (enpleguko BGAEen ondare guztiaren % 74 dira sektorialak), kontuan izanda horiek ezarritako gastuen ehunekoa % 0,31 dela, ondorioa are nabariagoa da: banakako BGAEek administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa ia lau aldiz handiagoa da enpleguko lau BGAE sektorialek batez beste ezarritakoa baino.

Alde horretatik, kudeaketa kolektiboa duten enpleguko BGAEek abantailak dituzte, argi eta garbi, banakakoen aldean. Eta abantaila hori oso handia izan daiteke ondare metatuak edota horrek ekarriko duen pentsioak zer azken balio izango duen kalkulatzeko jarritakoan.